BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

1791

EBAZPENA, 2013ko apirilaren 3koa, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariarena. Honen bidez, 33/2013-C prozedura laburtuko administrazioarekiko auzi errekurtsoari buruzko PCA-063-2013-VI administrazio-espedientea Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Bilboko Epaitegira bidaltzea xedatzen da, eta balizko interesdunak epatzen dira, epaitegi horretan ager daitezen.

Administrazioarekiko Auzien Bilboko 6 zenbakiko Epaitegiak PCA-063-2013-VI zenbakiko administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du, zein –33/2013-R prozedura laburtuan– 2012ko abenduaren 3ko Ebazpenaren –merezimenduen Balorazio Batzordearen Erabakien aurkako errekurtsoa ezetsi zuenaren– aurka bideratutako administrazioarekiko auzien errekurtsoari buruzkoa baita. Erabakiok karrerako pertsonal funtzionarioarentzat gordetako lanpostuak betetzeko prozeduran –2012ko urtarrilaren 19ko Ebazpenez deialdia egindakoan– hartu ziren (urtarrilaren 19ko EHAA, 13. zenbakia).

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Eskatutako administrazio-espedientea Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Bilboko Epaitegira bidaltzea.

2.– Prozedura honetan interesa dutenak epatzea, egoki baderitzote, Administrazioarekiko Auzien Bilboko 6. Epaitegian ager daitezen –33/2013-R prozedura arruntean–, eta beren interesen alde egin dezaten. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 3a.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.